

KARMELO IKASTOLEA. Batasunak proposatuta, Surbisak txostena aztertuko dau hilaren 20an



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Ikastolako guraso eta irakasleak oso arduratuta dagoz udal agintariei hartu dabene jarrera ikusita.

Behartsuen Senidetxoak lursailean badago lekua ikastetxe barria egiteko

Ikastolako guraso eta irakasleek bidea moztuko dabe gaur, Udalaren jarrera salatzeke

Iñigo Bilbao

Behartsuen Senidetxoak izeneko lursailean leku nahikoa dago Karmelo Ikastola barria egiteko. Ikastetxea egiteko baldintza bakarra, bertan egitekoa dan eraikuntza proiektuan etxe gitxiago egitea da. Hori bai, egingo diranek altuagoak izan beharko dabe. Enpresa eraikitzailea prest dago, baina azkenengo berbea Udalak eta Jaurilaritzak emon beharko dabe.

Horren ganeko txostena Surbisaren esku dago, eta alkarteko zuzendaritza osotzen daben ordezkari politikoei hilaren 20an aztertuko dabe proposamena. Bien bitartean, ezinegon gero eta handiagoa da Karmelo Ikastolako guraso eta irakasleen artean. Areinegun udalarekin izan ziran. Jose Manuel Uribarri Hezkuntza Saileko zinegotziagaz alkatu ziran, eta batzarretik sartu zirana baino hasarreago urten eben.

Gurasoak eta irakasleak gogaituta dagoz dagoeneko Administrazioaren jarrereagaz, eta batzarraren ostean protestak antolatu ditue euren eskakizunei jaramon egin deien: Baimena eskatu dabe gaur bertan, arratsaldeko 17:00etan, Me-

nendez eta Fika kaleen arteko bidekurutzea mozteko.

Guraso, irakasle eta Santutxuko euskaltzaleek protesta ekintzak hasiko dituen arren, ikastolako arduradunek arazoari urtenbidea topetako ahaleginetan jarraitzen dabe, eta euren eskatuta, Fede Arruti arkitekto eta ikastolako guraso ohiak prestatu dau orain Surbisaren mahai ganean dagoen txostena. Azterketa hori Udaleko talde

politikoei aurkeztu deusie. Txostena aztertu, bideragarria dala ikusi eta Antigu Berri enpresa eraikitzailearen oneritxia jaso ostean, Kepa Ibaibarriaga eta Eduardo Arnaiz Batasunak Surbisaren dituan ordezkariak, alkartean aurkeztu dabe proposamena, Udalak be onartu daian.

Horren arabera, Behartsuen Senidetxoak izeneko lursailean dagoeneko hasiak diran obretan, hoge etxe gitxiago egingo

leukiez, eta horko etxebizitza horreek ganontzeko eraikinen artean bananduko litzatekez.

Proposamenean zehazten denez, inguruan hori baino eraikin altuagoak dagoz, eta halandaze, horrek ez leuke desorekarik eragingo auzoan. Aldaketak ez leuke egitasmoa garestituko, ez enpresa eraikitzailearentzat, ez eta Udalarentzat be: Etxebizitza, lokal eta garaje kopuruak bere horretan mantenduko litzatekez, eta berde guneak hasierako egitasmoan jasotzen ziranak izango litzatekez.

Egia da, ikastola barria egiteko hasieran eskatzen ziran 8.000 metro koadroak baino askoz be eremu txikiagoa hartuko leukela eraikinak—3.000 metro koadro inguru—, baina ez da ahaztu behar, proposamena onartu ezker, ikastolak proiektuan agertzen diran berdeguneak, jolastokiak eta kirol azpiegiturak erabili ahal izango dituela, auzoko umeekin batera.

Oraindino gehiago. Batasunak proposamenean gogortzen dauenez, oraingo ikastolearen jolastokia eta frontoia hor geratuko dira, baita ikastolearen egoitza be, eta Udalak danak erabili ahal izango ditu auzoko preminei erantzuteko.

ESKAERIA

Santutxuk Karmelo behar dau

Karmelo Ikastolea da Santutxun D eredia eskaintzen dauen ikastetxe publiko bakarra. Horrexegaitik, eta auzoaren historian izan dauen eraginagaitik, bat egin dabe ikastolako guraso eta irakasleekin Santutxuko kultura eta euskera munduko talde guztiek. Izan be, aspaldikoa da arazoa. Ikastolea sare publikoan sartu zanean, 1993. urtean, Administrazioak egoitza barria agindu eutsen guraso eta irakasleei. Urteak joan urteak etorri, eraikin barria ez da inondik ikusten, eta zaharrean gero eta handiagoak dira arazoak. Hain handiak ze, urte bi barru hortik umeak atara eragingo dituela ikastetxeak ez dituelako gitxieneko baldintzak beteko. Eusko Jaurilaritzak ikastetxe barria egiteko lurrak eskatu eutsazan Udalari, eta honek ez daukazala erantzun eban. Atxurira edo Mina del Morroa joatea eskaini eutsien Karmelo Ikastolakoei. Euren ikastoleak Santutxun jarraitu behar dauela uste dabe. Baita auzotarrek be.

BILBO

Gazte feministak egunotan batuko dira arazoak ikusi eta euren burua antolatzeke

I. B.

Uriburuko emakume gazteak Kukutza gaztetxean alkatuko dira egunotan, emakume eta gazte izateagaitik zeintzuk arazo dituen aztertu, euren arteko komunikazinoa landu, eta euren burua trebatzeko. Ekimena auzorik auzo behar egiten daben taldeek antolatu dabe, eta ehun neska inguru alkatzea espero dabe antolatzaileek.

Topaketa feministok gaur arratsaldean hasiko dira, emakume gazteek izaten dituen enpleguetako baldintzak aztertuz egingo daben berbaldia-gaz. Geroago, barriz, gaubela egingo dabe burruka feminista garatzeko Eusko Herrian izan diran esperientziak aztertuz.

Izan be, domekara bitartean egingo dituen berbaldi eta eztabaida guztiak modu dinamikoan egingo dituela aurreratu dabe antolatzaileek: «Topaketok gazteen ikuspegitik gazteok prestatuak eta gazteontzat izango diralak», azaldu dabe.

Esandakoa egiteko asmoa

Ekimenak nondik nora joko dauen azaldu guran edo, antolatzaileek argi itxi dabe «esaten doguna egingo dogula, eta egiten doguna izango garala». Zentzu horretan, egoeraren ganeko eztabaidea-gaz batera, tailer bi gertatu ditue biharko: Sexualidadearen ingurukoa, goizean goizetik hasita, eta eraso sexisten ganekoa, bazkalostean. Gauean, Krag antzerki taldeak *La rebelión de las lavanderas* obrea eskainiko dau.

Domeka goizean irakaskuntzearen gorabeherak aztertuko ditue, eta arratsalderako itxi dabe, ekimenagaz amaitzeko, emakumeek orokorrean botereagaz daukien loturea eta arazoak aztertzeke berbaldia.

Ekimenean parte hartu gura daben emakumeek aukerak errezteke, antolatzaileek Kukutza gaztetxea gertatu dabe bertan lo egin eta otordu guztiak bertan egin ahal izateke. Horrezaz ganera, ezustekoak be gertatu ei ditue.